

Ordizian, 2015eko uztailaren 22an UDALBATZARRAK aparteko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan.

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

| | |
|-----------------------------------|---------------------------------------|
| Angelica Moreno Heras | EAJ/PNV |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ/PNV |
| Jose Ignacio Iturrioz Gotor | EAJ/PNV |
| Igor Eguren Izagirre | Ordiziako EH Bildu |
| Belen Maiza Urrestarazu | Ordiziako EH Bildu |
| Adur Ezenarro Agirre | Ordiziako EH Bildu |
| Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. | Ordiziako EH Bildu |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | Ordiziako EH Bildu |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | Ordizia Orain |
| Antxon Sanz Lecuona | Ordizia Orain |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna | Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak |

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

| | |
|----------------------------|---------|
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ/PNV |
|----------------------------|---------|

IDAZKARIA: Iker Rocandio Etxeberria jn.

KONTUHARTZAILEA: Jose Luis Aranburu Otegi jn.



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1) 2015. urteko inbertsioak finantziatzeko maileguaren kontratazioa.
- 2) 2014. urteko Kontu Orokorraren onarpena.
- 3) "Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak": ordenantzaren behin-betiko onarpena.
- 4) Ordiziako BILDU taldeak aurkeztutako proposamena (mozioa)"IRRIKI elkarte eta HERRIKO taberna libre eta zabalik" izenburua duena.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:02 etan

AMAIERA: 19:23etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du.

1.- 2015. urteko inbertsioak finantziatzeko maileguaren kontratazioa.

Proposamena

Aurtengo inbertsioak finantziatzeko Aurrekontuan agertzen den 1.241.840 kopuruko Mailegua kontratatzeko asmotan, Ordizian bulegoa duten Entitate guztiei eskatu zitzaizen bere eskeintza egitea.

Eskeintzak hauek jaso dira:

| | |
|---------------|-------------------------------|
| Kutxabank | Hiruhilabeteko euriborra+0,95 |
| Rural Kutxa | Hiruhilabeteko euriborra+0,79 |
| Laboral Kutxa | Hiruhilabeteko euriborra+1,25 |
| Sabadell | Hiruhilabeteko euriborra+0,95 |

Ikusten denez, eskeintza hoberena Rural Kutxarena da.

AKORDIO PROPOSAMENA

Rural Kutxarekin 1.241.840,00 euroko mailegu bat hitzartzea 2015eko inbertsioak finantziatzeko, ondoko ezaugarri nagusi hauekin:

- Interesa: Hiruhileko euriborra gehi 0,79
- Amortizazio epea: 10 urte
- Gabezia: urtebete
- Ordainketak hiruhilabetero
- Irekitze baimena: %0
- Amortizazioa aurreratzeagatik: %0
- Bermea: U.F.F.M. % (Rural Kutxarekin dauzkagun maileguak, mailegu guztiekin gordetzen duten portzentaia berdina edo handiagoaren portzentaia).

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Proposamenak dagokion batzorde informatiboaren aldeko irizpena du.

Hitzartzeak



Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jin

Azaldu ditu maileguaren nondik norakoak.

Sukia and

Aurrekontuetan parte hartu ez dugunez, ez dugu gaia ezagutzen eta ez dugu bozkatuko, ez alde, ez aurka.

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 10 (EAJ/PNV 4, Ordiziako EH Bildu 5, Socialisas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (Ordizia Orain)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



2.- 2014.urteko Kontu Orokorraren onarpena

Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2015eko maiatzaren 13an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zitzaion 2014ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2015eko maiatzaren 19ko GAOko 92. alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udalbatzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

2014ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Proposamenak dagokion batzorde informatiboaren aldeko irizpena du.



Hitzartzeak

Sukia and

Aurreko puntuan bezala, garai hartan Udalean ez geundenez, abstenituko gara.

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 10 (EAJ/PNV 4, Ordiziako EH Bildu 5, Socialisas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (Ordizia Orain)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



3.- "Ordiziako herritarrek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarriak": ordenantzaren behin-betiko onarpena.

Gai hau mahai gainean gelditu da.



4.- Ordiziako BILDU taldeak aurkeztutako proposamena (mozioa)"IRRIKI elkarte eta HERRIKO taberna libre eta zabalik" izenburua duena.

LIBRE ETA ZABALIK

"El sumario de las herrikos" izenarekin ezagutzen dugun, eta 13 urte luzez irekita egon den prozesu judizialak, pasa den astean utzi du azken kapitulua eta, sententzia horrekin erakunde eta militante ezkertiar abertzaleei, beren jarduera social eta politikoa aurrera eramateko baliabideak mugatu egin dizkie.

Herriz herri. Ordizian barne, sortutako ehunka kultur eragile eta bilgune sozio-politiko desjabetzeko ebazpen eta agindu honek, herritar askoren artean isla eta ordezkapena duen talde politiko oso bat, bere lan eta jarduerarako hankamotz uzten du.



Urte luzez iraun duen gogorkeri armatua behin betiko amaitutzat ematen den honetan. Euskal Herriak bere nortasuna indartzeko eta etorkizuna eraikitzeko, lege barruan sortu diren alderdi eta mugimendu sozial guztiak, euren egitekoak baldintza eta berdintasuna egoera normalizatu batean egitea eskatzen du gizarle osoak.

Horrelako epaiek, askotan zalantzan jartzen dute. Estatu baten gituraketa demokratikoa eta Estatuko botereen artean egon behar den banaketa: gobernuaren bultzada politiko baten medioz, epaitegiek gisa honetako ebazpenak bideratzean.

Egoera honen aurrean Ordiziako Udalak, bere babeska eskaitzen die Ordiziako Irriki Kultur Elkarteari, Herriko tabernari eta bertan lan egiten duten eragile politiko, sozial eta kultur taldeei, eta bide batez, sententzia honen aurrean, ondorengo erabakiak hartzen ditu Ordiziako osoko bilkurak:

1.- Espainiar Epai Mahai Gorenak Irriki Kultur Elkartea eta Herriko taberna desjabetzeko harlu duen erabakia irmoki salatzea.

2.- Erabaki honen berri, Espainiar Epai Mahai Gorenari ematea.

3.- Baita ere, Goierriko komunikabide guztiei, argitaratu dezaten mozio honen onarpenaren berri ematea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Proposamenak dagokion batzorde informatiboaren aldeko irizpena du.

Hitzartzeak

Eguren jn

Salatu nahi dugu gerra zibiletik hona eman den desjabetza politiko handiena dela

Irrikik ia 80 bazkide ditu, eta Herrikoarekin batera eragiten dio epaiak. Ez dakigu noiz, baina desjabetza gauzatzeaz da. Langileak kalera doaz. Egoera larria da, eta ez dago atzera bueltarik.

Egin, egunkaria eta beste kasu batzuetan bezala, azkenean absolutzioa datorrenean ere, ondorioak atzera-ezina dira.

Alkate jn

Alde bozkatuko dugu



Sukia and.

Guk ere.

Eguren jn

Eskatzen diot Alkateari elkarteko Zuzendaritzarekin biltzera, egoera zuzenean ezagutzeko.

Alkate jn

Horrela egingo dut.

Bozketaren emaitza

Aldekoak: 10 (EAJ/PNV 4, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 1).Aurkakoak: 0

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

